

Bertsioak eta bariazioak / Ibon Egaña / *Deia*, 2024-05-11

Aki Kaurismakiren pelikula berri bat ikustera joatearen antzeko zerbait da Pello Lizarralderen liburu berri bat irakurtzen hastea. Badakizu gutxi-asko zer topatuko duzun, eta horretxan bila zoaz, gainera. Mundu bat eta estetika bat, begiratzeko modu bat eta obsesio batzuk, edo agian haien bariazio bat eskatzen diozu, eta ez dizu huts egiten idazleak. Ezta *Lanbroa* azken nobelan ere.

Argumentuaren sinopsi erakargarria eta, gero eta gehiago, nobelaren gaia liburuak aurkezteko eta irakurle jakinengana hurbiltzeko amu gisa erabiltzen diren garaian, deigarria, ia anakronikoa egin zait Lizarralderen hau nolako zuhurtziaz aurkeztu duen idazleak bezala argitaletxeak. Estetikari tematikaren gaintik eman nahi zaion lehen mailako tokia seinatzen duen hautua, ziurrenik. Larunbat arratsalde batean aspaldian topo egin gabeko gizon batek eta emakume batek elkar ikusi ostean bizi duten asaldura da nobelaren abiapuntua, hala gaztigatzen zaigu kontrazalean. Eta pixkanaka doa jabetzen irakurlea batak bestea bahituta izan zuela ordu batzuek duela hogeita bi urte, gizona komando bateko iheslaria zenean.

Zer pentsa ematen duen erabakia iruditu zait, *spoiler*ra saihestetik harantzago doana, jakina, "gatazkari" erreferentziarik ez egin izana nobela aurkeztean. Alde batera, garai eta testuinguru historiko jakinak izanagatik, Kaurismakiren filmetan bezala, inguruabar eta denbora historikoak beste dimentsio bat hartzen du Lizarralderen nobelan; telefono mugikor bat ager daiteke, baina fabrikatik atera ostean ohean harmonika joz atsedean hartzen du pertsonaiak eta kamioian datoz ogi-saltzaileak, istorioaren leku-garai partikular bat sortuz, mugaldeko landa-girokoa. Ez baitu nobelak garai historiko edo politiko bat berreraikitze asmorik, estetikak agintzen du hemen eta, beraz, ez dago diskurtso sozio-politikoaren oihartzunik, ezta orduko gertakari handien aipamenik ere. Gainera, zuhurra da liburu hau "gatazkari buruzko" nobela gisa ez aurkeztea, bestelakoak baitira egilearen asmoak, nagusia amaieran pertsonaietako baten gogoetan aipatzen den arrastoari jarraitzea: "neurri batean bederen, gure bizitzatik pasatu direnen oroitzen utzi dugun arrastoa ere bagara".

Miresgarria eta gozagarria iruditu zait nobelan bi pertsonaien ikuspegiak nola txertatzen eta txandakatzen diren, nola une batzuek elkar ukitu ostean elkarrengandik urruntzen diren, nola lehen pertsonako bi narratzaileek zein bere bertsioa ematen duten gertatutakoaz. Gertaera beraren bi bertsio irakurtzea azken buruan bi istorio irakurtzea dela erakusten digu eleberriak, elkarrekin topo egiten duten bi kontakizun, idazleak zein bere ahotsez eta bere autonomiaz doitu dituenak. Pertsonaia bien bertsioak kontrajartzean liburuak ez du, haatik, bi posizio ideologiko aurrez aurre jartzeko asmorik, narratzailearen hurbilketa, izan ere, diskurtsiboa bainoago da estetiko eta sensoriala: usaindu, ukitu, entzun egiten ditugu bahiketak irauten duen orduetako gorputzak, mugimenduak edo beldurrak. Idazlearen lanetan obsesioa den ihesaren gaiaren bariazio berri bat ere badakar liburu honek, izan ere, hasiera eta bukaera diferenteak izan arren, barruan Lizarralderen nobela bat (*Larrepetit* bera gogora dakarrena) duen nobela bat baita *Lanbroa*. Ohiko obsesioen bariazio honetan beharbada berriago egiten da amaiera aldera zentzumenetatik harantzago joan eta pertsonaien barne-pentsamenduei emandako lekua. Memoriari buruz, ahanzturari eta gogoratzeari buruz egindako hausnarketek, tesi edo erantzun argirik eman gabe, lanbroaren azpiko begirada lauso eta zalantza bat proposatzen digute iraganera begira jartzeko.